




Udako
Topaketak
2018

hh
hik hasi

XIX. **hik hasi** udako topaketak

2018ko ekainaren 26an eta 27an, **LEIOA**n
2018ko uztailaren 2an, 3an eta 4an, **DONOSTIA**n



Sarriera

hik hasi proiektuak hemeretzigarren urtez antolatu ditu **Udako Topaketa Pedagogikoak**. Ekainaren 26an eta 27an EHUren Bizkaiko Irakasle Eskolarekin batera Leioan. Eta, uztailaren 2an, 3an eta 4an EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatearekin batera Donostian. Horrela, gaurkotasan handia duten gai ei buruzko ikastaroak egin ahal izango dira euskaraz.

Ikastaroak eskaintzeaz gain, hainbat arlotako irakasleak elkartzeko eta haien esperientziak trukatzeko topaleku izatea ere nahi dugu. Bertan, hausnarketa, asmo, ideia, proiektu eta berrikuntzak plazaratuko dira.

Aipatutako ikastaro guztiak goizez egingo dira Donostian. Arratsaldeetan, tailerrak, aurkezpenak eta eztabaida-saioak izango dira.

Leioan, berriz, ikastaro guztiak goiz eta arratsaldez izango dira.

Ordutegia

Ikastaroak: 9:00etatik - 14:00etara goizeko ikastaroak.

Ikastaroak: 9:00etatik - 14:00etara eta 16:00etatik 18:30era goiz eta arratsaldekoak.

Arratsaldeetako saio libreak, Donostian soilik: 16:00etatik - 18:30era

Topaketak, beraz, **Donostiako EHUren Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean** eta **EHUren Leioako Irakasle Eskolan** egingo dira.

Kopuru mugatuko ikastaroak

Ikastaro horietan aurrena izena ematen dutenek eta harpidedunek izango dute lehentasuna.

Pedagogia Sistemikoaz zenbait pintzelada

Ekainak 26 eta 27. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Pedagogia Sistemikoaren oinarriko kontzeptuak ezagutuko ditugu eta begirada sistemikoak ikasgelan (baita gure familian, lantokian, lagun artean...) zer nolako begirada aldaketa eskaintzen digun bizitzeko aukera izango dugu ariketa praktiko zein taldeko hausnarketan bidez. Bi goizetan, bi zutabe nagusi izango ditugu; “familia eta eskola” komunitatearen arteko elkarlana eta sistema ezberdinetan diharduten “hurrenkera sistemikoak” (Bert Hellinger). Bi zutabe nagusi horiek, autoritatetik zer-nola zaindu ditzakegun hausnartuko eta sentituko dugu arratsaldeetan. Profesional gisa ditugun ardura eta funtzioetatik, ikasleen zaintza eta garapena nola ziurta dezakegun hausnartuko dugu elkarrekin, egunerokorako eraginkorrak izan daitezkeen adibideak eta esperientziak elkartrukatu.

Norentzat

Hezkuntza komunitatean diharduen profesionalentzat, ikasleekin eta haur zein gazteekin harremanetan dagoenarentzat, gurasoentzat eta ikuspegi sistemikoan interesa duen pertsona ororentzat.

Landuko diren gaiak

- Sarrera gisa, Pedagogia Sistemikoaren oinarriak.
- Sistemak eta horien arteko harremana
- ELKARLANA. Familia eta eskolan zentratuko gara.
- Bert Hellingerren hurrenkera sistemikoak: pertenezia, hierarkia eta hartu-emanaren oreka.
- Hezkuntzako profesionalok ditugun muga, ardura eta funtzioak.
- Zer da autoritatea izatea? Autoritatetik nola ziurta dezakegu familia-eskola elkarlana? Eta hurrenkera sistemikoak?

Metodologia

Edukiak garatzeko azalpenak modu teorikoan egingo ditugu, eta batez ere teoriaren garapenerako proposatuko diren praktikak eta bizipenak izango dira ardatza. Ariketa konkretuak banaka, talde txikitik eta talde osoan egingo ditugu.

Ikastaroak izaera **teoriko-praktikoa** izango du, parte-hartzailea.

***Aitziber ESNAOLA ARRIBILLAGA.** Arkitektoa (UPC), Haur Hezkuntzako Irakaslea (EHU), Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku-hartze sistemikoan espezializatua. Egun Lanbide Heziketan dihardu lanean.

***Larraitz MENDIZABAL HUITZI.** Psikologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako irakaslea (EHU), Psikoterapeuta ikastaroa Gestalt eta psikologia humanistikoan, UNEDen Acoturierren psikomotritatean formatua, Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku-hartze sistemikoan espezializatua. Egun aholkulari lanetan dihardu.

* **KOPURU MUGATUA** *

Mugak jarri autoestimua zainduz

Ekainak 26 eta 27. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Haur bakoitza loratzeko behar duen guztiarekin jaiotzen da. Gure lana gizakiak izateagatik eman zaizkigun ezaugarri guztiak mantentzen, garatzen eta aktibatzen laguntzea da. Aldi berean, gaitzespena eta kezka pizten dizkiguten jarrerekin aurkitzen gara, eta beharrezkoa zaigu gure balio edo mugak transmititu ahal izatea. Gaur egun badakigu haurren osasunaren garapenerako osagai onuragarriak atxikimendu segurua sortzea dela, bakoitzaren erritmoa errespetatzea eta ulertua dela sentitzea, horiek mugak ezartzearekin bateragarria izanik. Baina zer gertatzen da haurraren portaera onargarria ez dela pentsatzen dudanean edo heldu bezala behar duena zer den ulertzea edo atenditzera iristen ez naizenean?

Norberaren autokontzeptuak bizitzako maila guztietan duen eragina kontuan hartuta, famili eta hezitzaileak haur eta gazteen autoestimua eraikuntzan ispilu gara. Aurkezten dudan erronka beharrezkoak diren mugak ezartzea litzateke, haur edo gazte bakoitzaren harri bitxiak babestuz haien lorpenek baldintzatu gabe, beren garapen osasuntsu baterako eta komunitatean integrazioarako laguntza gisa.

Norentzat

Gurasoentzat, hezitzaileentzat edo interesa duen edonorentzat.

Ikastaroaren helburuak

- Nola ulertzen dira mugak paradigma desberdinetan?
- Mugak, zer dira? Zertarako balio digute? Zeintzuk? Eta nola?
- Haur bakoitzean dagoen altxorra aurkitu
- Mugak jartzerakoan beharrezkoak ditugun osagaietan abilezia garatu: enpatia, asertibitatea, altxorak aurkitu...
- Mugak errespetatzen ez direnean, zer egin dezakegu?

Landuko diren gaiak

- Mugak, zer dira? Zertarako balio digute? Zeintzuk? Eta nola?
- Nola erakitzen da autoestimua? Zerk lagundu edo oztopatu dezake helduen aldetik norbere irudiarekin gustura egoten?
- Zein da zure haurra/ikaslea? Altxorraren bila.
- Komunikazioarako bi elementuak: enpatia eta asertibitatea.
- Jokaera desatseginen aurrean, nola jarri mugak bere irudia zapuztu gabe?

Metodologia

Teoria aurkeztu ondoren, ariketa praktikoan bidez parte-hezitzaileek kasu konkretuetan lantzeko aukera izango dute. Izaera **teoriko-praktikoa** izango du.

* **Nerea Mendizabal.** Komunikazio Ez Bortitzeko formatzailea, psikopedagogo, Gizarte Hezkuntzan diplomatua, haur masajeko hezitzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

MINDFULYOGA “Adimena eta gorputza bat egiten”

Ekainak 26 eta 27. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Ikastaro honetan Mindfulness eta Yoga zubi baten bi aldeak dira, leku jakin batera iristeko: geure barnera.

Zubiaren alde batean Mindfulness-a dago, gaur egun arretaren eta adimenaren inguruan egindako ikerketa berritzaileak ezagutzera eman dituen entrenamendu mentala; bestaldean aintzinatik datorenen Hatha Yogaren jakituria, gorputzean oinarritzen dena.

Mindfulness praktikak norberaren pentsamendu, sentsazio eta emozioez ohartzen irakasten digu orainean eta adiskidetasun jarrera batekin. Yogak, berriz, gorputzean kokatzen du arreta.

Horrela, Mindfulness eta Yoga uztartzen ditugunean entrenamendu osoa daukagu norberaren ongizatea lortzeko: Mindfulnessak adimena ezagutzen eta lasaitzen lagunduko digu eta Hatha Yogak gorputza luzatzen eta erlaxatzen.

Norentzat

Norberaren ezagutzan sakondu nahi duen orentzat. Arreta, burua eta gorputza gehiago ezagutu nahi dituen horrentzat.

Landuko diren gaiak

- Mindfulness meditazioaren oinarriak ikasi: norberarentzat eta ikasleekin eta seme-alabekin erabiltzeko.
- Yogako ariketa praktikoak barneratu arnasa eta gorputza landuz.
- Arreta, kontzentrazioa eta orainean bizitzeko gaitasuna landu.
- Adimena lasaitzen eta erlaxatzen ikasi.
- Gorputza sentitu eta ezagutu.
- Norberaren pentsamenduak kudeatzeko baliabideak ikasi.
- Emozio zailak kudeatzeko teknikak ezagutu.
- Egoera mental baikorrak lantzen dituzten praktikak: esker ona, adeitasuna, adiskidetasuna landu.

Metodologia

Praktika eta teoria tartekatuko ditugu. Mindfulness-aren inguruan egindako ikerketa zientifikoek emandako emaitzak ezagutuko ditugu, adimena, emozioak eta gorputzaren inguruko teoria berriak ezagutzuz; eta Mindfulness-meditazio praktikatan sakonduko dugu. Hatha Yogak gorputza sentitzera eramango gaitu eta bere filosofiaren oinarriak begiratuko ditugu.

* **Naiara GORROÑO VITERI.** Komunikazio Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Pedagogian Masterduna Bartzelonako Unibertsitatean. Yoga irakaslea. Mindfulness bideratzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Bizitzaren eskola: askatasunerako pedagogia

Ekainak 26 eta 27. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Haurren garapen-prozesuan modu egokian laguntzeko eta lagun egiteko eskolaren nolakotasuna eta izaera errotik aldatu behar da. Eskolak ukan beharreko ezaugarriak sakonki aztertuko ditugu formazioan zehar, modu teorikoan eta bibentzialean. Haurren prozesuan oztopo baino bidelagun egoki izateak suposatzen duen aldaketa ez baita teorikoki bakarrik ikasten eta jakiten ahal den zerbait, oso garrantzitsu deritzogu helduaren hausnarketa prozesuari eta bere buruan arakatzeko gaitasunari. Horretan laguntzeko ariketak izanen dira hortaz teorikoagoak izanen diren saioen osagarri. Eskolak nolakoa behar lukeen atalean eskola baten sortze prozesuan kontuan hartu beharreko aldagaiak landuko ditugu banan-banan, praktikotasun osoarekin.

Norentzat

Maisu-maistra eta irakasleentzat. Haur-hezitzaileentzat. Eskolatzeko adina duten haurren gurasoentzat eta interesa duen edonorentzat.

Helburuak

- Haurren benetako beharretara egokitutako eskola baten nolakotasuna ezagutzea.
 - Helduen formazio-prozesuan hausnarketa bibentzialak duen garrantziaz ohartaraztea.
 - Ikastea bezain garrantzitsua da gure heziketaren ondorio diren baldintzamenduen des-ikastearen prozesua.
 - Eskola on batek ukan beharreko ezaugarriak sakontasunez eta praktikotasunez jakitea.
1. Pedagogia aktiboaren klabeak ezagutzea eta horietan sakontzea.
 2. Haurrekin kalitatearekin egoteko eta aritzeko trebatzea.

Edukiak

1. Haztea. Ikastea. Heldu bilakatzea.
2. Askatasuna.
3. Garapenaren etapak.
4. Bidelagun izatea

...

* Ane ABLANEDO LARRION (koordinatzailea). Bigarren Hezkuntza eta unibertsitateko irakaslea Iruñean eta Baionan. Psikoterapia eta neurosiaren prebentzioan aditua.

* Ane OTXOTeko VAQUERO. GOIZTIRI eskola librea koordinatzaile eta bidelagun. Haur prebentzioan aditua.

*** KOPURU MUGATUA ***

Psikoterapia eta gorputza hezkuntzan

Ekainak 26 eta 27. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Psikoterapiako kontzeptuak irakasleen gaitasun pedagogikoak hobetzeko Psikologia eta gorputz psikoterapiako kontzeptuak oinarritzat hartuz lehendabizi norbere nortasunaren jatorria ulertuko dugu prozesu pertsonal batean. Eta ondoren, ikasleek izan ditzaketen nortasunetara pasako gara.

Pertsona bakoitza jaio garen kulturara eta maila intimoago baten jaio garen familia sistemara egokitzen gara. Egokitzapen fase honetan gure izaera edo nortasuna sortu ohi dugu. Nortasun bakoitzak bere ezaugarriak ditu, bere onura eta eragozpenekin. Haiek ulertzeak gure ikasleekin modu osasuntsuagoan eta eraginkorragoan erlazionatzeko gaitasuna eman-go digu. Eta ez ikasle gatazkatsuekin bakarrik, baizik ikasle guztiekin.

Norentzat

Irakasleentzat, zein pertsonekin erlazionatzen den edozeinentzat.

Izaera

Teoriko/praktikoa: teoria modu kontzeptualean azalduko da eta gorputz dinamikekin esperientziara eramango da teorian ikasi dena. Bi helbururekin:

- Ikasitakoa buruan bakarrik izan ordez gorputzean ere integratua eramatea.
- Erabiliko diren dinamikak parte hartzaileek beren ikasleekin praktikan jarri ahal izatea.

* **Jokin BERISTAIN LOPEZ DE ZUBIRIA.** Titulazioz Ingeniaria (MU) eta Gorputz eta Emozioetan espezializaturiko psikoterapeuta (Biosintesia). Psikoterapeuta eta EHUko irakasle kolaboratzailea Ingenieritza fakultatean.

* **ELEN KORTAXARENA GESALAGA.** Biodantza irakaslea eta HUUHEZI fakultateko irakasle kolaboratzailea. Haur Hezkuntza graduatua. Gorputz Psikoterapia ikasketak burutzen ari da egun.

* *KOPURU MUGATUA* *

Suizidioaren prebentzioa

Ekainak 26 eta 27. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Suizidioari buruz hitz egiteak, zorigaitzoko heriotzak saihesten lagundu dezake. Ikastaro honetan, suizidioaren inguruan dauden zenbait tabu, eta baita zenbait mito ere landuko ditugu. Gaur egun, errepide istripuetan hiltzen diren pertsonen kopurua eta bere buruaz beste egiten dutenen kopurua alderatzen baditugu, azken haiek bikoitza direla egiaztatuko dugu. Ildo beretik jarraituz, harrigarria da horien inguruan hain gutxi entzutea, jende askok uste baitu trauma horiek jorratzeak bultzada efektua sor dezakeela. Suizidioaren aurkako kanpainak egitea beharrezkoa den zerbait da eta berehala egin beharrezkoa. Benetan premiazko beharra!!!

Norentzat

Ikastaroa suizidioaren gaia interesatzen zaion edonorentzat dago bideratua eta bertan bizitzaren ziklo ezberdinei helduko zaie: haurtzarora, nerabezarora, helduarora, eta azkenik, zahartzarora.

Landuko da

Horrez gain, ondoren gertatzen denaz ere hitz egingo dugu, ez soilik prebentzioaz. Postbentzioan, musikan eta ahotsean oinarrituko gara tresna erabilgarri gisa emozioak bideratzeko. Neurozientziako erreferentziak hartuta, minaren ibilbidea ulertzen saiatuko gara. Askotan, hitzen bitartez ez baitakigu nola atera barruan daukaguna. Aurreko bi tresna horiek interesgarriak izan daitezke kasu horietarako.

* Patxi IZAGUIRRE. Psikologo klinikoa, Psikoterapian aditua (EFPA) eta EHUKo Osasun Psikologia Orokorra Masterrean, irakaslea.

* Ane IZAGUIRRE. Musikan aditua eta Psikologiako ikaslea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Antzerkia eta gatazken kudeaketa: elkarbizitza eraikitzen

Ekainak 26 eta 27. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Ikastaro honen helburua gizartea eraldatzeko antzerkiak eskaintzen dizkigun tekniketan trebatzea da. Batez ere Imajina Antzerkian eta Forum Antzerkian murgilduko gara. Imajina Antzerkiak errealitatea esploratzeko eremua eskaintzen digu. Imajinak hitzekin deskribatu ezin dugun errealitatean murgiltzen gaitu, ikusezina den elementuetan erreparatu ahal izateko. Bestalde, Forum Antzerkiak elkarbizitzako korapiloak edo gatazkak aztertzeke eta horien kudeaketaren inguruan saiakerak egiteko posibilitatea ematen digu.

Norentzat

Irakasle, hezitzaile, gizarte langile eta garapen pertsonal eta sozialean interesa duen edonorentzat.

Gaiak

- **Antzerki arloan:** kohesio dinamikak, imajina antzerkia, antzerki foruma, inprobisazioa, eszenen sormena eta errepresentazioak aztertzeke hainbat estrategia dramatiko (aulki beroa edo pentsamenduen bunbuiloa).
- **Trebetasunak arlo pertsonalean eta sozialean:** gatazken konponbidea, asertibitatea, enpatia, emozioak, autokontzeptua.

Metodologia

Metodologia **teoriko-praktikoa** izanen da. Esperientzian eta ekintzan oinarritzen den metodologia oso dinamikoa erabiliko da. Hala ere, teoriari leku bat emango zaio: Antzerki Foruma eta Imajina Antzerkia ondo kokatzeko asmoz, Augusto Boalek sortutako Zapalduon Antzerkiaren inguruan azalpenak emango dira. Horrekin batera, egoeren errepresentazioa aztertu eta arakatu ahal izateko, partaideen hausnarketa funtsezko aktibitate bat izango da. Bakarka eta taldean lan egiteko testuinguru babestu eta konfiantzazkoa eskainiko da, bakoitzaren erritmoa errespetatua izan dadin.

* Esther URÍA. Aktorea, psikopedagogo eta ikertzailea. Momentu honetan Unibertsitatean Antzerkiaren eta Elkarbizitzaren inguruan ikerketa bat garatzen ari da.

* **KOPURU MUGATUA** *

Matematika eskuetara LHn

Ekainak 26 eta 27. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Hezkuntzaren munduan aldaketa sakonen garaian gaudela onartuta, guk matematikaren irakaskuntzari jarriko diogu fokua.

Urteetan testu liburuetan oinarrituta funtzionatu izan dugu eta horrek **matematikaren** garapena arrotza, hotza, iluna eta mekanizista egitera eraman gaitu. Horri buelta eman nahi diogu eta berezkoak dauzkan **ukigarritasuna** eta **jostagarritasuna** atera nahi dizkiogu.

Lehen Hezkuntzako eduki eta gaitasun matematikoak aztertzen jardun ondoren, **kontzeptuetara senetik eta esperientziatik hurbiltzeko teknikak, moduak, jolasak eta baliabide materialak** badaudela ikasi dugu. Horiek **ezagutzea eta praktikatzea** da hain zuzen ere ikastaro honen helburua. Gai honen inguruko interesa dutenek **lehenengo bustitze zabal eta sakona** hartzeko aukera daukate.

Norentzat

Etxean edo ikastetxean LHko 1., 2. eta 3. mailetako matematikekin ari direnentzat.

Gaiak

- “Matematika eskuetara” ildoaren ideia orokorraren azalpena.
- Eduki-blokeak hartuta (geometria, zenbakikuntza, neurria eta logika) horiek modu manipulagarrian lantzeko ildo orokorren azalpena.
 - Bizipenetatik, esperimentaziotik eta ikerketa matematikotik jarduteko aukerak
 - Baliabide manipulagarrien erabilera.
 - Jolasen aukerak.

Metodologia

- Aurrezken teorikoak eta saio praktikoak tartekatuz arituko gara:
 - Material manipulagarriak bertan izango ditugu eta erabiliko ditugu.
 - Jolasak eta proposamenak bertan gauzatuko ditugu.

* Leire ARANA RUIZ DE EGUINO. Irakaslea eta matematika manipulagarrian aditua.

* *KOPURU MUGATUA* *

GURE ESKOLAK MILA KOLORE DITUELAKO

Ongi Etorri eskolara!

Ekainak 26 eta 27. LEIOAko EHUren Irakasle Eskolan
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Gure eskoletan, gela eta espazio desberdinetan, kultur-aniztasuna landu eta pedagogia kultur anitzaren bidez, esku hartzeak egiteko helburuarekin aurkezten dugu ikastaro hau.

- Estereotipoak identifikatuz, gure eskoletako kultur-errealitate anitzak aztertuko ditugu.
- Bestearen ezagutza eta onartzetik, dibertsitate kulturala lantzeko aukerak identifikatuko ditugu.
- Eskola, elkarbizitzarako gune naturala da eta kultur-aniztasunaren garapenerako altxorra.
- Beste herrialdeetatik etorritako familiak, euskara eta Euskal Herriko kulturarekiko motibazio kanala pizteko era praktikoak ezagutuko ditugu.
- Horrek guztiak, eguneroko elkarbizitzan urrats sendo eta naturalak emateko balioko digu.

Norentzat

Irakasleentzat, teknikarientzat, gurasoentzat, hezitzaileentzat eta jangeletako langileentzat.

Landuko diren GAIAK

1. Aurreiritziak deseraikiz. Nola ikusten ditugu besteak?
2. Gure geletako egituraketa berria. Nola bihurtu desabantaila, abantaila gure eskoletan?
3. Esku-hartze estrategia desberdinak, “Ongi Etorri eskolara!” esperientziaren bidez.
4. Eskola eta familia desberdinen adibide praktikoak.
5. “Familia laguna” esperientzian parte hartu duten pertsonen testigantzak.
6. Euskararen ezagutza eta erabileraren emaitzak.

Metodologia

Metodologia parte hartzailea izango da. Hausnarketarako eta kontzientzia hartzeko helburuarekin. Ikus-entzunezko baliabideak erabiliko ditugu, banakako eta talde dinamikak egin eta tresna praktikoak eramango dituzue zuekin.

* Nerea REDONDO OTAMENDI. Soziologoa eta Coaching metodologian aditua.
 Ongi etorri Ikastolara! ekimeneko kidea.

** KOPURU MUGATUA **

Uztailak 2, 3 eta 4
Donostiako EHUn

Wilhelm von Humboldt: hezkuntza, hizkuntza eta Euskal Herria

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikastaro honen helburua Humboldt (1767-1835) eta bere obra ezagutzera ematea da, hala, bai bere hezkuntzaren eta hizkuntzaren filosofia orokorra, bai euskal hizkuntza eta nazioari buruzko bere ikerketak. Humanista klasiko hau, egiaz, antropologia jakin batetik abiatuz etorri zen Euskal Herrira (birritan 1800 inguruan) eta horren haritik hizkuntzaren problematikara hurbildu zen. Hori guztia argitzea da ikastaroaren asmoa.

Norentzat

Humboldtten euskal ikerketak ezagutu nahi dituenarentzat edota hezkuntzaren eta hizkuntzaren arteko sakoneko loturaz hausnartu nahi duenarentzat.

Edukia

1. Hezkuntzaren antropologia eta euskal bidaiak: a/ gizakiaren ezagutza eta ulermena; b/ nazioak eta euskal nazioa aztergai; c/ euskal bidaiak eta ikerketa etnografikoak.
2. Hizkuntzaren teoria eta euskal ikerketak: a/ antropologiatik hizkuntzara; b/ euskal nazioa eta euskal hizkuntza; c/ euskal monografiaren egitasmoa.

Metodologia

Irakasleak teorikoki azalduko ditu edukiak eta, modu osagarrian, horiekin loturiko hainbat testu esanguratsu irakurriko dira.

* Iñaki ZABALETA GORROTXATEGI. Filosofia Saileko irakaslea da Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia fakultatean (EHU).

Askatasunean hazi, hezi eta bizi

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU. 9:00 - 14:00

Askatasunaren printzipioa zalantzan jarri ezina izanik, gure bizitzaren ardatz bilakatzen saiatzea da gutako askoren erronka. Guretzat bezala, biziki garrantzitsua da haurrentzat ere askatasuna ukan dezaten euren bizitza eraikitzeko eta diren bezala garatzeko, barnean duten eta diren hori osoki loratuko bada, bederen. Helduaren nortasunaren konfigurazioan haurtzaroak duen garrantziagatik, bizitzaren lehen urteak kalitatezkoak izatea behar du edozein prebentzio eredu eta programaren helburu nagusi. Hori baita geroko gaixotasunak ekiditeko modurik seguruen eta eraginkorrena. Helduoi dagokigu, bada, guraso, hezitzaile edo gizarte-kide soil gisa, haurren bizitzaren kalitatea bermatzea, askatasuna, atxikimendua, errespetua eta zaintza kontzientea erdigunean izan den haziera eta heziketa eredu integralak sustatuz. Haurrenganako gure begiradaren aldaketa ekarriko duen paradigma-aldaketa erabat beharrezkoa dugu, eta horretara dator, hain zuzen ere, ikastaroa. Haurtzaroan sano eta oso garatzeko haurrek behar dituzten ekosistema ezberdinen nolakotasuna aztertzea, eta kalitatezko bizitza batek—haurrenak bezala gureak ere—ukan beharreko printzipioen inguruan hausnarketa proposatzera.

Norentzat

Haurtzaroa zaintzearena gai soziala eta politikoa izanik, gaiari buruz hausnarketa egin nahi duen orori eskainia dago. Haurrez inguratuta bizi direnentzat—gurasoak, hezitzaileak, maisu-maistrak, hiritarrak—. Prebentzio-programak diseinatzeko ardura duten eragileentzat. Politikoentzat.

Helburuak

- Haurtzaroaren kalitatezko zaintza baten printzipioez jabetzea. Zer da benetan haurrek behar dutena?
- Haurrak askatasunean haztearen sakoneki esanahia ongi ulertzea, eta askatasuna-muga binomio hautsiezinez ohartaraztea. Etxeko eta eskolako ekosistemek nolakoak izan behar duten gogoeta egitea.
- Haurrei eskaini beharrekoa lehenago gudan lortzearen ezinbestekotasunaz ohartzea. Horregatik dakarzikiolako helduari onurak haurraren garapen-prozesuan bidelagun izatea.

Edukia

Haurtzaroko urteen garrantzia geroko helduaren nortasunaren konfigurazioan. Haurra begiratzeko, ulertzeko eta zaintzeko eredu ezberdinak. Gure naturarenganako konfiantza berreskuratu beharra. Harremanean hazten garen espeziea izanik, haurrekin erlazionatzeko gure moduaren garrantzia. Nolako ekosistema/inguruak behar ditu haurrak. Helduaren nolakotasunaren aldakortasunaren garrantzia. Amatasun eta aitatasun kontzientea, prebentzio-eragile paregabea. Haurtzaroko etapak. Bakoitzak garapenean duen funtzioa. Nola kokatu heldu bezala. Behar naturalak vs. behar kulturalak/ordezkatzaileak/sekundarioak. 0-3 urteen nolakotasuna. Etxean? Haur-eskolan? Fase sexualak: Ahotasuna eta genitaltasuna. Bularra. Atxikimendu segurua. Konkista maduratiboaren kontzeptua. 3-7 urte tartearen nolakotasuna: Eskola. Beharrezkoa al da? Nolako? Zertarako? Eskola: paradigma aldaketa. Eskolari kendu ikasketa eragozten duen gutzia. Eskolako helduen funtzioa.

Metodologia

Ikastaroan tartekatuta egingo dira azalpen teorikoak, taldeko hausnarketak, norberaren bibentzialtasuna eragiteko teknikak edo testuen irakurketa. Gaiak ezberdin landuko dira, horietako bakoitzak eskatzen duen modurik aproposenean.

* Ane ABLANEDO LARRION. Unibertsitateko irakaslea (UPPA, NUP). Haur-prebentzioan espezialista. Eskola alternatibo eta pedagogia librearen gaian formatzailea. Hizlari eta artikulugilea.

Ikasleak erakarri, euskaraz egin nahi izan dezaten

Ekainak 26 eta 27. LEIOAko EHuren Irakasle Eskolan
9:00-14:00 eta 16:00-18:30

Euskal Girotze Barnetegietako egonaldietan eraldaketa-prozesu bati ekiten diogu. Prozesuan, ikasle taldea eta pertsona (norbanakoa) dira gure lanaren ardatz eta erdigune. Ikasleek euskararekin duten harreman afektiboa berariaz lantzen dugu, haiek euskarara erakartzen eta limurtzen saiatzen gara, euskaraz egin nahi izan dezaten. Gure proposamenaren ardatza da ikasleek kontzientzia hartzea, euskararen atxikimendu baikorraren graduaren kontzientzia, taldean sortzen diren emozioen eta elkarrenganako dinamiken kontzientzia...

Barnetegietako dinamiketan hainbat emozio azaleratzen dira: bizipenak, sentimenduak, hunkidurak... Talde hausnarketaren bidez, barnetegian aukera ematen diegu ikasleei emozio horiek kanporatzeko, hitza jartzeko eta besteekin partekatzen. Euskararen hautua pertsonala da, bide hori norberak egin behar du, baina bidea denon artean eraiki dezakegu. Horixe da gure nahia, bide hori elkarrekin egitea, modu dibertigarri, ludiko eta erakargarrian.

Nola egiten dugu hori? "Agian, guk esandakoa ahaztu egingo dute, baina inoiz ez sentitu dutena". Horixe da gure esaldi gakoetako bat. Babesa, afektua eta segurtasuna ematen diegu. Aukerak sortzen ditugu, ikaslea entzule izatetik hiztun kontziente izatera pasa dadin.

Metodologia

Ikastaroaren izaera erabat **praktikoa** izango da eta esperimendazioan oinarrituko da.

Oharra: arropa eroso eta eramatea komeni da.

* **Mari Carmen ALTUNA** eta **Amaia ZUBIZARRETA**, Elgoibarko Euskal Girotze Barnetegiko irakasleak.

* **Monika FERNANDEZ**, Barriako Euskal Girotze Barnetegiko irakaslea.

Euskal Girotze Barnetegiaren web orria: **www.barnetegiak.eus**

*** KOPURU MUGATUA ***

Komunikazio Ez Bortitzan sakontze maila

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Komunikazio Ez Bortitzak (KEB) norbera bere buruarekin eta besteekin bizitzeko eta modu gizatiarra goan erlazionatzeko eredu konkretu bat aurkezten digu. Ereduek horrek pentsatzeko eta adierazteko ohitura berriak ezagutu eta barneratzea eskatzen du eta hori posible izango zaigu praktikatzu eta gure bizitzako eremutan aplikatzera eramanez.

KEB zerbait ezagutzen baduzu, sakontze ikastaro honek elkar ulertzeko eta barne bakerako beste salto bat eskainiko dizu.

Norentzat

Komunikazio Ez Bortitzeko hastapeneko edukiak dituztenentzat.

Helburuak

- KEB sakontasunean gehiago ezagutzea.
- Norberarekin eta ingurukoekin konexio eta lotura gehitzea.
- Komunikazioko bi elementuetan trebatzea: entzute enpatiko eta adierazpen zintzoa.
- Kudeatzen zaila egiten zaizkigun emozioekin lagun egitea.
- Harremanetan ulermen eta eraginkortasun gehiagorako elementuak ezagutzea eta praktikatzua.

Edukia

- **KEBko barne-praktika: norberaren entzute eta zaintzaren esperimentazioa.**
- **Adierazpen zintzoa, asertibitatea.**
- **Entzute enpatikoaren boterea.**
- **Haserrea: amorruek dakarkigun edertasuna jasotzeko aukera.**
- **Errua: nola eraldatu bizitzako energia?**
- **Nola eskatu?**
- **KEBrekin eskertzak adierazten.**

Metodologia

Teoria aurkeztu ondoren, ariketa praktikoekin bidez, parte-hezitzaileek kasu konkretuak lantzeko aukera izango dute.

* **Nerea MENDIZABAL.** Komunikazio Ez Bortitzeko formatzailea, psikopedagogo, Gizarte Hezkuntzan diplomatua eta haur masajeko hezitzailea.

* *KOPURU MUGATUA* *

Dislexia

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHUn.
9:00 - 14:00

Azken urte hauetan dislexiari erantzuteko aurrerapen nabarmenak egin dira, baina ezin dugu ukatu falta handia sentitzen dela oraindik. Orain nahiko erraz onartzen bada berariazko zailtasun hau eta espezialisten eskutara bideratu arren, aldi berean nabarmena da ez dela nahikoa, guztiontzat arrakasta lortzetik urrun samar gaudela.

Dislegi elkarteak bilatzen duena zera da: familiak ikasi behar dituzten oinarrizko tresnak beraien seme-alabei erantzun akademikoa arrakastatsua izateko, irakasleria osoak erabili dezala bere eguneroko ikaste-irakaste prozesuetan.

Norentzat

Edozein irakaslerentzat.

Helburuak

Dislexia ezagutzea, eskolan eta etxean erantzuteko tresnak eta estrategiak martxan jartzeko. Familia, ikastetxe eta ikaslearen arteko arduren banaketa zehaztea.

Edukiak

Dislexia ikaste nahasmenduaren detekzioa eta esku-hartzea: detekzio goiztiarra eta arriskuaren adierazleen azterketa.

Esku-hartzeko estrategiak eta egokitzapen metodologikoak zein curricularrak, elkarlanerako eredia jarraitzeko gelan.

Metodologia

Teoria eta praktika landuko da.

Egiazko kasuen metodologia.

Tresna digitalak.

Lan taldeak eta mahai-inguruak.

* **Arantza ELGEZABAL**. DISLEGI elkarteeko psikopedagogo eta familien orientatzailea. EHUn Magisteritzaren Heziketa Berezia eta Psikopedagogia ikasketak. Master logopedia ISEPn.

* **DISLEGI** elkartea. Gipuzkoako Dislexia elkartea familia batzuk eratu zuten. Gipuzkoako familiei laguntzeko sortu arren, ikastetxeko irakaslekin eta zenbait erakundekin ere elkarlanearitzen da.

* *KOPURU MUGATUA* *

Hezkuntza eredu parekidea

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikastaro honetan aisialdirako erabiltzen ditugun ipuin, jolas, jostailu eta filmak aztertuko ditugu genero ikuspegitik. Eskolan egunerokoan erabiltzen diren baliabideak diren alde-tik, ezinbestekoa baita hauek parekidetasunetik aztertzea, gerora gurasoei ere hainbat iriz-pide helarazteko.

Horretarako, oinarrian dagoen matxismoak haurrek erabiltzen dituzten euskarriotan duen eragina aztertuko dugu eta horri buelta emateko baliabide eta moduak ikusiko ditugu.

Norentzat

Irakasle, hezitzaile eta gurasoentzat. Hezkidetzan eta hezkidetzat praktikan jartzeko baliabideetan interesatuta dagoen edonorentzat.

Landuko dena

- Hezkidetzaren oinarria eta garrantzia.
- Emariak: emakume erreferenteen falta gainditzeko tresna.
- Sozializazio desberdinaren eragina neska eta mutilei helarazten zaizkien mezuetan.
- Hezkuntzan balioak haurrei zabaltzeko erabiltzen diren euskarrien analisia.
- Ipuin sexistak eta parekideak.
- Jolas eta jostailu sexistak eta parekideak.
- Film sexistak eta parekideak.
- Sare sozialak eta bideo-jokoak.

Metodologia

Teoria eta praktika tartekatuko ditugu. Oinarri teorikoa ezagutu eta ariketen bitartez, baliabide horiek aztertu eta haien inguruan hausnartuko dugu, bide berriak landuz.

* **Ilazki GAINZA GIRALDO.** Giza Zientziak: Komunikazioan lizentziatua (Deustuko Unibertsitatea). Emakume eta Gizonen Berdintasunaren Gaineko masterduna EHU. Formatzaile feminista.

* *KOPURU MUGATUA* *

Barne sormena lantzeko estrategiak: zure

arlotako ikasgaiak aberasteko eta ikasleekin harremanak sendotzeko

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikastaro honek sormena lantzeko estrategiak eskaintzea du helburu, sormena eta arte garaikidea bide-lagun dituela. Arte garaikideak eta kultura bisualak eskaintzen dizkigun egiteko moduak aztertu eta bertan egingo diren proposamen praktikoeekin tartekatuz, irakasleak bere ikasleekin landu ditzakeen ariketa txikiak eskainiko dira. Ikasgaiak arintzeko eta aberasteko proposamenak dira. Arte garaikideak eskaintzen dizkigun egiteko moduak ezagutzeko aukera. Sormenerako gaitasuna ikasleengan areagotzeko, ikasgai eta maila ezberdinetan landu daitezkeen proposamenak dira eta irakasle-ikasle harremanak sendotzeko lagungarri izan ohi dira.

Norentzat

Unibertsitateko eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat.

Landuko diren gaiak

- Ikasgaiak hasteko estrategiak.
- Marrazkiaren bitartez gaiak eta norberak dauzkan oinarrizko ezagutzak azaleratzea.
- Irudi bat aztertzerakoan sortzen diren narrazioak.
- Objektuen memoria eta haien arteko dialogoak.
- Paisaia eta barne paisaia.
- Gorputza eta bere mugak.

Metodologia

Metodologia aktiboetan oinarritua egongo da ikastaroa. Proposamenak bertan landuko dira eta ikaslearen inplikazioa eta arduratze aktiboa eskatzen duten jarduerak landuko dira. Taldean tartekatuko ditugu gaiak, komunikazioa eta ebaluazio kolektiboak egingo direlarik.

Ikastaroaren izaera

Teoria eta praktika tartekatuko da.

* Alaitz SASIAIN CAMARERO-NUÑEZ eta * Olaia MIRANDA BERASATEGI.
Arte Ederretan doktore, EHUKo Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultatean irakasleak dira. Musika, Plastika eta Gorputz Adierazpenaren Didaktika Saileko kideak.

* *KOPURU MUGATUA* *

Mindfulness-a (Arreta Osoa) eta gogo-aldartearen kudeaketa hezkuntzan

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Gaur egun gure hezkuntza sisteman irakasleen estres mailak oso altua izaten jarraitzen du. Irakasleei gero eta eskari handiagoak eta anitzagoak egiten zaizkie, egoerak ere azkar aldatzen dira eta egokitzea eskatzen zaie. Horregatik, irakasleek beren lan esparruko eguneroko erronkak kudeatzen lagunduko dieten tresnak behar dituzte. Oinarri zientifiko sendoa duen mindfulness-a gakoa izan daiteke laneko eta erkidegoaren ongizatea sustatzeko tresna gisa.

Norentzat

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat.

Helburuak

- Arreta Osoan oinarrituriko teknikak ikasi eta praktikatzea.
- Arreta Osoaren esparruan psikologiak eta neurozientziak egindako aurrerapenak eskolarekin eta ikasgelako kudeaketarekin lotzea.
- Gure burua hobeto tratatzen ikastea, Arreta Osoko tresnen bidez.

Edukia

- Mindfulness-a, irakasleen gogo-aldartearen autokudeaketarako.
- Mindfulness-a, ikasgela egoki kudeatzeko.
- Mindfulness-a, ikastetxeko pertsonen arteko harremanak egoki kudeatzeko.

Metodologia

Metodologia **teoriko-praktikoa** izanen da. Mindfulness-a hezkuntzan ardatz izanen duen oinarri teorikoa eta ezarritako helburuak eta edukiak lortzen lagunduko duten praktikak uztartuko dira. Gainera, irakasleen estresari buruzko kasuak aztertuko dira eta azalduko da estres hori mindfulness-aren bidez nola kudeatu.

* **David ALBEAR**. EHUko Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Departamentuko irakaslea eta ikerlaria da eta 12 urte daramatza psikologiaren profesional gisa BARAKA Psikologia Integraleko Institutuan. Hainbat ikastaro formakuntza eman ditu. 2016ko urtarri-lean Mindfulnessari buruzko tesia irakurri zuen: "Mindfulness, autocompasión y estrés docente en el profesorado de Educación Secundaria".

* **Pello URKIDI**. Donostiako Irakasle Eskolako irakaslea da, Mindfulness-ean formatua eta praktikatzailea.

* **KOPURU MUGATUA** *

Pedagogia Sistemikoa ikasgelan

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Pedagogia Sistemikoaren oinarritzko kontzeptuak ezagutuko ditugu eta ariketa praktikoen bidez begirada sistemikoak ikasgelan bertan (baita gure familian, lantokian, lagun artean...) zer-nolako begirada aldaketa eskaintzen digun bizitzeko aukera izango dugu. Familia eta eskola komunitatearen arteko elkarlana izango dugu abiapuntu, eta ibilbide bat egingo dugu sistema ezberdinetan diharduten hurrenkera sistemikoak (Bert Hellinger) ezagutzetik eta gure egunerokoa, dagokigun arduratik, ikasleen zaintza eta garapena ziurtatzen dituen jardunean sakontzeraino.

Norentzat

Hezkuntza komunitatean diharduen profesionalentzat, ikasleekin eta haur zein gazteekin harremanetan dagoenarentzat, gurasoei eta ikuspegi sistemikoan interesa duen pertsona ororentzat.

Landuko diren gaiak

- Pedagogia Sistemikoaren oinarriak.
- Sistemak ezberdinak eta haien arteko harremana. Familia eta eskolan zentratuko gara.
- Norbere jatorri sistemikoaz ohartzeko zenbait proposamen.
- Bert Hellingerren hurrenkera sistemikoak ezagutzea: pertenezia, hierarkia eta hartu-emanaren oreka.
- Hezkuntzako profesionalok ditugun muga, ardura eta funtzioak.
- Zer da autoritatea? Eta zer da ikasgelan autoritatea izatea?

Metodologia

Edukiak garatzeko azalpenak modu teorikoan egingo ditugu, eta batez ere teoriaren garapenerako proposatuko diren praktikak eta bizipenak izango dira ardatza. Ariketa konkretuak banaka, talde txikitik eta talde osoan egingo ditugu.

Teoriko eta praktikoa izango du.

* **Aitziber ESNAOLA ARRIBILLAGA.** Arkitektoa (UPC), Haur Hezkuntzako Irakaslea (EHU), Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku-hartze sistemikoan espezializatua. Egun Lanbide Heziketan dihardu lanean.

* **Larraitx MENDIZABAL HUITZI.** Psikologian lizentziatua (EHU), Haur Hezkuntzako irakaslea (EHU), Psikoterapeuta ikastaroa Gestalt eta psikologia humanistikoa, UNEDen Acouturierren psikomotrizitatean formatua, Masterra Pedagogia Sistemikoan eta Panpinekin orientazio eta esku-hartze sistemikoan espezializatua. Egun aholkulari lanetan dihardu.

* **KOPURU MUGATUA** *

Irakurketa eta idazketaren lehen urratsak ikuspegi konstruktibista-kulturala oinarri

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Irakurketa eta idazketaren didaktikan topa ditzakegun hainbat praktiken euskarri teori-koak arakatu eta haien inguruan hausnartuko dugu. Modu honetan, gelako praktiken eta teoria ezberdinen arteko zubiak bilatuko ditugu, gelan egiten ohi dugunaren zergatietan sakonduz. Gure ikasleek ezagutza eraikitzerakoan, hizkuntza idatziaren jabeakuntzan ari direnean, egiten duten prozesua ulertzen saiatuko gara, haien galderen eta kezken nondik norakoak, haien zalantzen zergatia edota euren elkarrekintzetan sakontzen ahaleginduko garelarik, gure lana eta hezitzaile rola birpentsatzeko tresnak jasoz.

Norentzat

Haur Hezkuntza (3-6) eta Lehen Hezkuntzako lehen ikasturtekoentzat.

Landuko diren gaiak

- Hizkuntza idatziaren jabeakuntza aztertu duten teoria eta ikerketak. Irakas ereduen atzean leudeken ikuskerak, oinarriak eta paradigmatik.
- Irakurketa eta idazketaren irakaste prozesua eskolan: begirada historiko bat.
- Erabilera sozialeko testuak eskolan.
- Ikas eta irakas prozesuan parte hartzen duten kideen arteko elkarrekintzak aztertu hobekuntzarako tresna gisara.
- Ebaluazio kolaboratiboa; erregulazioa eta autoerregulazioa. Zenbait tresna.
- IKTak eta hizkuntza idatzia ikuspegi konstruktibista eta edukomunikatibo batean.

Metodologia

Izaera teoriko-praktikoa izanen du, bata eta bestea uztartuko dira eskolako adibideetatik teoriara eta hortik eskolarako loturak eginez aldioro.

* Nora SALBOTX ALEGRIA. Haur Hezkuntzako maistra. Psikopedagogo. Edukomunikazioan eta Landa Eremuko Hezkuntzan aditua. Baztango Herri Hezitzaileko kidea. NUPEko irakasle elkartua.

* *KOPURU MUGATUA* *

Jolasa eta jolas terapeutikoa eskolan: baliabideak, tresnak eta praktika onak

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Gaur egun ez dago zalantzarik haurraren garapenean jolasak duen garrantziaz. Nolako jolasaz hitz egiten dugu? Jolasa eta jolas terapeutikoari buruzko hausnarketa egingo dugu.

Zein begirada eta zein jarrera ditugu haurraren jolasarekiko?

Haur eta nerabeen garapeneko uneren batean premia bereziren bat ager daiteke, edota helduaren begirada, bultzada eta arreta behar izan dezakete ikasleek.

Hainbat teknika edo baliabide ezagutu eta bizituko ditugu ikastaro honetan, haurra hobeto ulertzeko eta bere garapen osasuntsu eta orekatuan laguntzeko.

Norentzat

2 urtetik 14 urte bitarteko hurrekin lan egiten duten profesionalentzat. Aholkulari, PT, tutore, hezitzaile, irakasle, bide-lagun...

Izaera

Teorikoa eta bibentziala

*** Irakasleak**

Euskal Herriko Jolas Terapia Elkarteko kideak.

** KOPURU MUGATUA **

Gure eskolak mila kolore dituelako, ONGI ETORRI ESKOLARA!

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Gure eskoletan, gela eta espazio desberdinetan, kultur-aniztasuna landu eta pedagogia kultur anitzaren bidez, esku hartzeak egiteko helburuarekin aurkezten dugu ikastaro hau.

- Estereotipoak identifikatuz, gure eskoletako kultur-errealitate anitzak aztertuko ditugu.
- Bestearen ezagutza eta onartzetik, dibertsitate kulturala lantzeko aukerak identifikatuko ditugu.
- Eskola, elkarbizitzarako gune naturala da eta kultur-aniztasunaren garapenerako altxorra.
- Beste herrialdeetatik etorritako familiek, euskara eta Euskal Herriko kulturarekiko motibazio kanala pizteko era praktikoak ezagutuko ditugu.
- Horrek guztiak, eguneroko elkarbizitzan urrats sendo eta naturalak emateko balioko digu.

Norentzat

Irakasleentzat, teknikarientzat, gurasoentzat, hezitzaileentzat eta jangeletako langileentzat.

Landuko diren GAIAK

1. Aurreiritziak deseraikiz. Nola ikusten ditugu besteak?
2. Gure geletako egituraketa berria. Nola bihurtu desabantaila, abantaila gure eskoletan?
3. Esku-hartze estrategia desberdinak, "Ongi Etorri eskolara!" esperientziaren bidez.
4. Eskola eta familia desberdinen adibide praktikoak.
5. "Familia laguna" esperientzian parte hartu duten pertsonen testigantzak.
6. Euskararen ezagutza eta erabileraren emaitzak.

Metodologia

Metodologia parte hartzailea izango da. Hausnarketarako eta kontzientzia hartzeko helburuarekin. Ikus-entzunezko baliabideak erabiliko ditugu, banakako eta talde dinamikak egin eta tresna praktikoak eramango dituzue zuekin.

* Nerea REDONDO OTAMENDI. Soziologoa eta Coaching metodologian aditua.
Ongi etorri Ikastolara! ekimeneko kidea.

** KOPURU MUGATUA **

Garapen pertsonala irakasleentzat: haur eta gazteen ahalduntze prozesuan bidelagun

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikaste-irakaste prozesuak adimenetik abiatzen dira orokorrean. Ikastaro honetan bizipenean oinarritutako esperientzia bat jasotzeaz gain, geure burua hobeto ezagutu eta bizitzako hainbat egoera gatazkatsuei aurre egiteko baliagarriak izango zaizkigun tresna praktikoak berreskuratuko ditugu. Norberarengan baitaude hazkuntza, garapen eta eraldaketa pertsonalerako gako nagusiak. Eta, ondorioz, haur eta gazteen ahalduntze prozesurako baliagarriak izango diren dinamika ugari ere ezagutuko ditugu.

Norentzat

Irakasle, hezitzaile edota bere garapen pertsonala landu nahi duen edonorentzat.

Helburuak

- Ahalduntze prozesuan norbere burua hobeto ezagutzeko barne baliabideak berreskuratzea.
- Lanketa pertsonalaren bitartez, jardun profesionalean txertatu ahal diren tresna praktikoak eskuratzea.

Metodologia

Ikastaro teoriko-praktikoa; gorputz psikoterapiako dinamiketan oinarritua. Ikasitakoa buruan bakarrik izan ordez gorputzean ere integratua eramateko. Horrez gain, biodantza, arnasketak, barne hausnarketak, etab. egingo dira.

Bideratzaileak

* Elen KORTAXARENA GESALAGA. Biodantza irakaslea eta HUHEZI (Mondragon Unibertsitatea, Eskoriatza) fakultateko irakasle kolaboratzailea. Haur Hezkuntzan graduatua. Gorputz psikoterapia ikasketak burutzen ari da gaur egun.

* Jokin BERISTAIN LOPEZ DE ZUBIRIA. Titulazioz ingeniaria (MU). Gorputz eta emozioetan espezializaturiko psikoterapeuta. EHUko irakasle kolaboratzailea, Ingenieritza fakultatean.

* *KOPURU MUGATUA* *

Heriotzaren psikopedagogia

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Duela jada hogeitau urte eskaini nuen gai honi buruzko lehen ikastaroa Hik Hasi. Gaur, zenbait kontzeptu birpasatzeko beharra sentitu dut, eta baita, urte hauetan hainbat kasutan ikasitako kontzeptu berri zuekin partekatzekoa ere. Zorionez, gaur egun doluaren gaiari modu didaktikoan heltzen diogu, eta ez soilik krisi baten aurrean gertatzen diren kasuetan. Nahiz eta oraindik, krisi baten aurrean aurkitzerakoan, orientabidearen beharra sentitu, emozioak bideratzeko.

Norentzat

Heriotzaren gaia interesatzen zaion edonorentzat. Bizitzako hainbat esparru jorratuko ditugu: haurtzaroa, nerabezaroa, helduaroa eta zahartzaroa.

Zer landuko da

Ikastaro honetan ahotsari eta musikari behar zaien garrantzia eman nahi diegu, tresna erabilgarriak eta ongarriak direla iruditzen baitzaigu kasu hauetan, esate baterako emozioak bideratzeko garaian. Ez dakigunean barruan duguna nola atera hitzen bitartez, beste alternatiba batzuk bilatu behar ditugu eta aurreko bi horiek dira hautabideak. Neurozientziako erreferentziak hartuta minaren ibilbidea ulertzen saiatuko gara.

* **Patxi IZAGUIRRE.** Psikologo klinikoa, Psikoterapian aditua (EFPA) eta EHUko Osasun Psikologia Orokorra Masterran irakaslea.

* **Ane IZAGUIRRE.** Musikan aditua eta Psikologiako ikaslea.

** KOPURU MUGATUA **

MINDFULNESSean oinarritutako jarduerak ikasgelan

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Mindfulness arreta osoa da, orainean gertatzen denaz jabetzeko gaitasuna, epairik gabe eta onarpen jarrerarekin. Gaur egungo bizimodu azkarrak eta bereziki teknologia berrien erabilerak gure berezko gaitasun hau dezente zailtzen du. Errazagoa eta ohikoagoa da gure pentsamenduetan distrahituta eta arreta galduta ibiltzea, orainean gertatzen den horretan adi egotea baino. Horrexegatik, Mindfulness entrenamendu bat ere bada, arretaren entrenamendua, orainean onarpenez egotearen jarrera hau lantzen duena.

Mindfulness-en erabilera gero eta zabalduago dago hezkuntzan. Ikerketek baieztatzen dute Mindfulness-ean oinarritutako jarduerak onurak dituztela ikasleen ongizate emozionalean eta beraien arteko harremanetan, baita emaitza kognitibo eta akademikoetan ere.

Ikastaro honetan 5 -17 urte bitarteko ikasleekin erabiltzeko Mindfulness jarduerak ikasiko ditugu.

Norentzat

Mindfulness jarduerak ikasgelan txertatu nahi dituzten irakasleentzat. Izen-ematean Mindfulness-ean ezagutzaren bat duten pertsoneri emango zaie lehentasuna.

Helburuak

- Norberaren mindfulness praktikan sakontzea.
- Ikasleekin ikasgelan Mindfulness erabiltzeko jarduerak ikastea.
- Ikasleekin Mindfulness jarduerak zuzentzeko gai izatea: taldea gidatzen trebatzea, hitza eta siltasuna egoki erabiltzea, entzute aktiboa garatzea.

Edukiak

Mindfulness-ean oinarria duten jarduera konkretuak ikasiko ditugu ikasleekin erabiltzeko Mindfulness jarduera horiek 3 esparrutara zuzenduko ditugu:

- arretaren erregulazioa
- emozioen bizipen osasuntsua
- norberarekin eta besteekin adiskidetasun jarrera lantzea

Mindfulness ikasleekin zergatik eta zertarako izan daitekeen baliagarria ikertuko dugu eta hezkuntzan erabiltzen diren Mindfulness programa ezberdinak ezagutuko ditugu

Ikus-entzunezko baliabideak eskainiko dira norberaren Mindfulness-aren bizipena aberasteko.

Metodologia

Praktika eta teoria tartekatuko ditugu Mindfulness jarduerak ikasgelan nola eta zertarako erabili aitzeko. Ikus-entzunezko baliabideak eta hainbat testu landuko ditugu ikasleekin Mindfulness-aren praktikan sakontzeko. Norberaren bizipenetik abiatuko gara talde guztiaren artean jakintza sortzen joateko.

* **Naiara GORROÑO VITERI.** Komunikazio Zientzietan lizentziaduna Nafarroako Unibertsitatean. Pedagogian Masterduna Bartzelonako Unibertsitatean. Yoga irakaslea. Mindfulness bideratzailea.

* **KOPURU MUGATUA** *

Materia eta energia gaiak Lehen Hezkuntzako ikasgelan eta graduan

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikastaro honetan materia eta energia gaiak Lehen Hezkuntzako ikasgelan nola jorratu daitezkeen garatu nahi da. Horretarako, Heziberri curriculumaz aztertuko da, bertan agertzen diren helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak. Horietatik abiatuz Lehen Hezkuntza graduan maisu eta maistren prestakuntzarako garatzen ditugun hainbat jarduera eskaini nahi ditugu.

Norentzat

Lehen Hezkuntzako maisu/maistrentzat eta Lehen Hezkuntza graduko ikasleentzat (EHUkoak eta beste unibertsitateetakoak).

Landuko diren GAIAK

- Materia eta Energia Heziberri curriculumean.
- Gai horiek Lehen Hezkuntzan lantzeko estrategia metodologikoak eta jarduerak: Ikerketak eta lan gidatuak.

Metodologia

Erabat praktikoa: lan teorikoagoak eta lan esperimentalagoak garatuko dira laborategian.

Izaera

Teoriko-praktikoa. Jarduera esperimentalak egingo dira laborategian.

* Jose Maria ETXABE URBIETA eta * Hector MORILLAS LOROÑO.
 Matematika eta Zientzia Esperimentalen Didaktika Saila (EHU).

*** KOPURU MUGATUA ***

ANTZERKI TEKNIKAK: hezkuntzarako tresna pedagogikoa

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikastaro honen helburua antzerkiak eskaintzen dizkigun tekniketan entrenatzea da, gero horiek ikasleekin tresna pedagogiko moduan erabiltzeko. Antzerkia edozein ikasgaitan erabil daitekeen metodologia berritzaile eta sortzaile baliogarria izan daiteke.

Norentzat

Hezkuntzan lan egiten duten profesionalentzat eta interesa duen edonorentzat.

Gaiak

- **Antzerki arloan:** beroketa jolasak, gorputz adierazpena, imajina teknikak, inprobisazioak, irakaslea rolean, antzerki sormena (estimulu ezberdinak erabiliz: egunkariak, ipuinak, margoak, argazkiak ...).
- **Trebetasunak arlo pertsonalean eta sozialean:** autokontzeptua, enpatia, emozioak, gatazken konponbidea.

Metodologia

Esperientzian eta ekintzan oinarritzen den metodologia oso dinamikoa erabiliko da. Talde osoan, talde txikitan edo banaka, landuko ditugu gai ezberdinak. Testuinguru babestu eta konfiantzazkoa eskainiko da, bakoitzaren erritmoa errespetatua izan dadin. Prozesua ondo ulertzeko, dinamizatzaileak behar diren azalpenak emango ditu, eta talde hausnarketari bere garrantzizko lekua emango zaio.

Izaera

Praktikoa.

***Esther URÍA.** Aktorea eta psikopedagogo eta ikertzailea. Une honetan Unibertsitatean Antzerkiaren eta Elkarbizitzaren inguruan ikerketa bat garatzen ari da.

* **KOPURU MUGATUA** *

Adimen Emozionala Hezkuntzan

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikastaro honen bitartez emozioen munduan murgilduko gara. Emozioak ezagutu eta ulertuko ditugu, gure bizitzaren lagunak izan daitezten. Teoria oinarria izango badugu ere, ikastaro praktikoa izango da, bakoitzak emozioak sentitzen ditugun era onartuz eta errespetatuz. Lantzen duguna gorputzetik pasako dugu, emozioak ulertzeko sentitu egin behar baitira. Horrela, sentitzen dugunaz kontziente izango gara eta hori izendatzeko hainbat erreminta lortuko ditugu. Gure emozioak kudeatzen ikasiko dugu, baita besteen emozioenganako ulermena, onarpena eta kudeatzen laguntzeko estrategiak eskuratu ere.

Norentzat

Hezkuntza munduan lan egiten duen ororentzat, haur zein gazteekin diharduten pertsonentzat: irakasle, guraso, hezitzaile, begiraleentzat. Adimen Emozionalean interesa duten guztientzat.

Landuko diren gaiak

- Emozioak ezagutu (hiztegi emozionala)
- Emozioen esanahia (zertarako daude emozioak)
- Emozioen ibilbidea
- Emozioen kudeaketa
- Gure beharrak
- Enpatia eta asertibitatea
- Komunikazio Ez Bortitza

Metodologia

Ikastaro **teoriko-praktikoa** izango da. Oinarri teoriko askotarikoan oinarritzen da eta horren balioa lantzeko era praktikoa erabiliko dugu. Horretarako, hainbat teknika erabiliko ditugu: artea, musika, antzerkia, gorputz adierazpena...

* **Donna APELLANIZ NIETO**. Lehen Hezkuntzako Magisteritzan Diplomatu. Adimen Emozionala Hezkuntzan masterra. Estrategia Sistemikoak Haur eta Nerabeekin masterra. Gaur egun, eskola aktiboan bidelaguna eta Adimen Emozionaleko irakaslea.

SIRIMIRI: oinarrizko yoga teknikak ikasgelatan ongizatea lantzeko

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ondotxo dakigu nola erortzen den sirimiria: ttantta txikiekin, emeki, etenik gabe. Eta ohartzerako, blai gaude! Metafora honek laburtzen du proposamen hau: irakasleek oinarrizko yoga lanabesak edukitzea, egunero ikasleekin 5 – 10 minutu jarduteko. Horrela, estres egoerak aurrikusi, kudeatu eta leuntzeaz gain, irakasleek zein ikasleek ohitura osasungarriak barneratuko dituzte modu atseginean. Edozein dela ere irakasten duen gaia, bere ikasleekin “Yoga kapsulak” lantzeko gai izango da irakaslea: arnasketa, mugimendu psikofisiko eta erlaxazio eskemak, 5 – 10 minutuko iraupenarekin, ikasgelan bertan, mahai zein aulkiak mugitu gabe.

Norentzat

Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako irakasleentzat.

Gaiak

Yogaren arnasketa, mugimendu psikofisiko eta erlaxazio tekniken ego-kitzapena ikasgelatan lantzeko.

Metodologia

Batik bat **praktikoa**. Teoria dossier batean bilduko da.

* **Haritz AZKUE GESALAGA**. Yoga eta Meditazio irakaslea. Haurrentzako Yogan bereziki prestatua. Hazkunde Pertsonalerako Orientatzailea (Gestalt). Lore Terapeuta (Bach). Arlo hauetan 2010. urtetik jardunean.

* **KOPURU MUGATUA** *

ARTikertuz, Ikus-Artean oinarritutako ikasketa

Uztailak 2, 3 eta 4. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Ikus-Artearen inguruko hausnarketa, eztabaida eta ikasketa bultzatu nahi da. Honekin, irakasleak, arlo honen inguruan duen esperientzia aztertzeko eta proposamen berriak jasotzeko aukera izango du. Zer egin esan beharrean, taldeak bere beharretara egokituko du lana. Formakuntza espazio bat izango da, non arte-hezkuntzaren didaktika hobetzeko aukerak zabaltzen ditugun. Ezagutza partekatzea proposatzen da eta elkarriketaren bitartez ezagutza garatzen joan, besteekin erlazioan ikasten dugula sinesten dugulako.

Norentzat

Haur, Lehen eta Bigarren hezkuntzako irakasleentzat.

Landuko diren gaiak (hiru egunetan)

- 1.1. ARTikertuz lantaldearen dinamika ezagutu eta honen inguruan hitz egin.
 - 1.2. Kasu baten azterketa: elkarrekin aztertu eta honen inguruko hausnarketa kritikoa egin.
 - 1.3. Arte garaikidearen nozioak ikertu eta bakoitzaren posizioa garatu.
- 2.1. **Tabakalerara bisita:** erakusketa aretoko proposamenarekin elkarriketa.
 - 2.2. **Ikus-artein oinarritutako ikasketa:** tailer praktikoa.
- 3.1. **Tailer kartografiko-artistikoa:** bultzatu nahi dugun arte-ikasketaren mapa sortu.
 - 3.2. **Aukerak eta mugak:** bizitako prozesuaren erakusketa.

Metodologia

Proposatzen den ikastaroa **dinamikoa eta praktikoa** da. Irudi eta akzio artistikoetan oinarritutako da. Bigarren saiorako, Tabakalerara bisita proposatzen da eta egun horretan lan dinamika bertan egingo da.

* **Estibaliz ABERASTURI-APRAIZ.** Arte Ederretan lizentziatua, Hezkuntzan doktore eta Hezkuntza Fakultateko irakaslea, EHU Plastika Adierazmenaren alorrean.

* **Andrea ARRIZABALAGA.** Arte Ederretan lizentziatua, Artaziak Arte-Hezkuntza taldeko kidea eta Tabakalera Hezkuntza Taldeko kidea.

** KOPURU MUGATUA **

Yoga eta kontzentrazio teknikak eskolan

Uztailak 3, 4 eta 5. DONOSTIAko EHU.
9:00 - 14:00

Zoriontsu izaten ikasteko tresnak

Irakasle edo hezitzaile izatea ez da lan erraza, berezkoa duen lanaz gain, ikasleen kontzentrazio eza, dispersioa, motibazio falta, emozio aztoratuak, jarrera desegokiak eta abar presente baitaude.

Horrek guztiak irakasleen osasunean eragin dezake, estresak sistema immunologikoa makaltzen baitu gaitz fisiko eta psikologikoak sortzeko arriskua areagotuz (urduritasuna, lo egiteko arazoak, min muskularrak, kontzentrazio falta, tristura, depresioa, etab.).

Helburuak

- Asana edo jarrera fisikoen bitartez gure gorputza sentitzea, lasaitzea, indartzea, energia harmonikoki mugitzea, adimena lasaitzea eta kontzentratzen ikastea.
- Arnasketak, nerbio sisteman eta emozioetan daukan eragin zuzenaz jardutea eta teknika horiek behar diren momentuetan erabiltzen ikastea.
- Adimena lasaitzea eta kontzentratzeko teknikak ikastea, horiek ikasleekin lantzeko.

Edukiak

- Osasuna indartzeko bost puntuak.
- Zoriontasuna eta egoera horretara iristeko baliabideak.
- Arnasketa prozesua eta bere eragina emozioetan.
- Emozioak askatzeko teknikak. EFT.
- Sintesia: ikasleekin egiteko erlaxazio, atentzio- eta bisualizazio-ariketak.

Metodologia

Yogak izaera esperimentalak daukanez, tailerra hainbat teknika erabilgarriren esperientzian oinarrituta dago.

***Marina PINTOS MARTIKORENA.** Pianojolea, musika irakasle eta yoga irakaslea. Azken urteotan Hezkuntza Elkarteei egokitutako formakuntza-tailerrak zuzentzen ditu.

* *KOPURU MUGATUA* *

m a t r i k u l a

Matrikula epea: **maiatzaren 31 arte.**

	Ikastaro 1	edo 2 ikastaro
Ikastaroen prezio arrunta	95 euro	150 euro
Prezio murriztuak:		
- Hazi Hezi ko harpideak	80 euro	130 euro
- hik hasi ko harpideak	60 euro	100 euro
- Hazi Hezi + hik hasi ko harpideak	50 euro	90 euro
- Langabetuak	60 euro	100 euro
- EHUko ikasleak	50 euro	90 euro

* Ikastetxeko harpidetza bakoitzaz irakasle bat balia liteke.

Ordainketa:

- Zure matrikula aintzat hartua izan dadin, diru-sarrera egin behar duzu kontu zenbaki honetan:
LABORAL KUTXA ES31 - 3035 - 0036 - 15 - 0360062005
- Diru-sarrera egiterakoan, jarri matrikulatuaren izena eta bi abizenak.
- Ordain-agiririk ez bidali.
- Ikastaroan lekurik ez badago edo ikastaroa egiten ez bada, dirua itzuli egingo zaizu.

Matrikula **www.hikhasi.eus** helbidean sartuz.

Adi! Ekainaren 18an mezu bat jasoko duzu zure *helbide elektronikoan*, Topaketen egitaraua eta dagokizun ikastaroko xehetasunak adieraziz.

***Oharra: 2 ikastarotan parte hartu behar dutenek (bata Donostian eta bestea Leioan), bi matrikula txartel bete behar dituzte, ikastaro bakoitzarentzat bana.**

Obarra: antolatzaileen esku gelditzen da programari behar diren aldaketak egitea.

Antolatzaileak



Babesleak



Gipuzkoako Foru Aldundia



Donostiako Udala



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION